

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

Eskumenak goragokoak bereganatzea zinegotziaren heriotzagatik (2022/11-DELEGFUNC espedientea).

EBAZPENA

Egindako eskuordetzeak bereganatzea garraioaren, merkataritzaren, ostalaritzaren eta enplegurako prestakuntzaren arloko zinegotzi arduradunari.

2020ko ekainaren 29ko Alkatetza-dekretu bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko ekainaren 29), Jose Angel Fernandez Nuñez, jauana izendatu zan honako gai honeetako zinegotzi arduraduna: «garraioa, merkataritza, ostalaritza eta enplegurako prestakuntza»; eta zeregin horretan honako ahalmenak eskuordetzea:

- a) Bere arloko gaiak gidatzea eta kudeatzea, baita hirugarrenei eragiten deutseen ekintza administratiboak ebazteko ahalmena bere.
- b) Bere arloko gaietara jagokezan ebazpen proposamenak egitea, kasu bakoitzean jakokion organoak ebatzi daizan.
- c) Sailari jakokozan diru-laguntzak ematea.
- d) Eskuordetuen esku ixtea martiaren 8koa dan Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 118. artikulua kontratazino-organuari (Alkatetari) ezartzen deutozan betebeharrak; honako honeek hain zuzen bere: batetik, kontratu txikietako espedienteak batu behar dauen dokumentazioaren ganekoa, eta bestetik, 118. artikuluari jarraituta espediente horretan jaso beharreko edukien egiaztapena. Betebehar horreetatik aparte, zinegotzi eskuordetu horreek kontratu txikien tramitazio-faseak arautzeko prozesuan zehar beste betebehar batzuk bere euki ahal izango dabez, beti bere, Sektore Publikoko Kontratuen ganekoa dan martiaren 8ko 9/2017 Legeagaz eta Mungiako Udaleko barne-araudiagaz bat etorrita, 5.000 eurotik gorako (BEZ kanpo) kontratu txikietan.

Berraztertze errekurtsoak organo eskuordetza-emoileak ebatziko ditu.

Beraz, indarrean dagoan legeak emoten deustazan eskumenak erabilia, ondoko xedapena emon dot;

EBAZTEN DUT:

1. 2020ko bagilaren 15eko alkatetza-dekretu bidez emondako eskumenok goragokoak bereganatzea Dekretu honen egunetik gora; edozelan bere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren gardentasuneko atarian argitaratu beharko da.
 2. Dekretu honen barri Udalbatzari emotea hurrengo egingo dan Osoko Bilkuran.
 3. Dekretu honen barri emotea Udaleko Sail guztiei, jakitun egon daitezana.
- Mungian, 2022ko irailaren 21ean.—Alkatea, Ager Izagirre Loroño